

HAMABOSTEKARIA 97. zenbakia 96ko uztailak 19

GOIERRITARRA



Ondo pasa eta
gutxi gasta

Arg.: Dioni

2 FILME
ERREBELATUZ
3 GNA
DOAN

3x2

ESKAINZA BEREZIA

Goen ^{ORDIZIA}
BEASAIN ^{FOTO}
FOTOETXE

BANAKA EKARRI DAITEZKE



CAF

CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, S.A.

CAFek Bilborako diseinatu eta egin duen Metroa oso aurreratua da teknologia aldetik:

- Kotxeen arteko interkomunikazio gardena.
- Lurra-trena arteko irrati-telefonía.
- Bidaiariei mezuak igortzeko megafonia.
- Bidaiarientzat erosotasun handiak: Aire egokitua, zarata-aurkako gupil malguak, suspentsio neumatikoa, tren-zenbaki eta destino adierazleak, geltokien ikus-entzunezko iragarleak, eserleku ergonomikoak, mugikortasun laburreko bidaiarientzat toki erreserbatuak, e.a.



- Bideo-ekipamendua gidaritza-kabinan bidaiari-departamentua ikusi ahal izateko.
- Suaren aurkako ekai eta estalgarri bereziak.
- Treneko ordenagailua, trakzio-ekipoa kontrolatu eta zaintzeko eta ekipo laguntzaileen gainbegiratze eta puntuan jartze automatikoa egiteko.
- Gidaritza eta mantenimendurako laguntza-sistemak gertakariei buruzko informazioarekin.

GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA
Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 88 96 12
Faxa: 88 27 19
Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre eta Argider
Mujika

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon Ara-
no, Mikel Albisu, Joseba Telle-
ria, Ane Martin, Loinaz Agirre
eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Jon Aizpurua, Andoitz Telleria,
Xabier Urteaga, Miren Etxezar-
reta, Edurne Albizu, Joxepa
Madariaga, Izaskun Salazar, Iñaki
Amundarain, Jon Ugalde, Koldo
Urrestarazu eta Urko Irastor-
za.

**Fotokonposizio eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.**
Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 5.700 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**
HAMABOSTALDIAN NABARMEN

Goierrentzat 175 milioi Euroatik

1995-1997 tartean, Goierri-
ko industria sektorea bul-
tatzeko 351 milioi pezeta
gastatzeko aurrekontua dute
Goierriko Garapen agen-
tziak (Goiekik) eta Goierri-
ko Herrien Ekintza Funda-
zioak.

Dirutza kopuru horren za-
ti handi bat, 175 milioi, Eu-
ropatik etorriko da. Etorki-
zunean ekonomia munduan
gerta daitezkeen aldaketei
aurrea hartu nahi zaie; etor-
kizuna prestatu. Zelatari la-
nak eginez, aldaketak aurri-
kusi eta langileak prestatu,
berziklatu nahi dira. ATON
proiektu honetan, turismoa
eta aisialdia ere bultzatu
nahi dira. Era honetan, 100
bat lanpostu sortu nahi dira.
139 milioi teknologia ikus-
kapena eta Pymesen aholku-
laritzarako; 91 langileen in-
formazio, berziklapenerako
eta Langileen Orientazio
Zerbitzua sortzeko; 38 en-
presen arteko kooperaziora-

ko; eta 21 turismo eta aisial-
diaren oinarriak martxan
jartzeko.

Goierri gain, Nafarroa,
Aragoi eta Madrilako komu-
nitateek hartu dute parte
proiektuan. Goierri data-
toren diru kopuruak, EAERA
etorriko den diru kopuruaren
% 23a suposatzen du.

Guillermo Etxenike Eko-
nomia Diputatuak aurkezpe-
nean adierazi zuenez,
“proiektu on bat” da, Euro-
pako diru-laguntza oso
proiektu gutxik lortzen bai-
tute.

Jon Jauregi Goiekiko Le-
hendakariak, Goierri zer ez
den azaldu nahi izan zuen.
“Goierri ez da orain dela ur-
te gutxiko Goierri. Asko al-
datu da. Ez da nekazaritza-
ren baitan bizi den eskualde
bat. Ez eta ere indarkeriaren
morrontzara lotuta dagoen
eskualde bat. Bere etorkizu-
na egin nahi duen eskualde
bat da”.

BOTA BERTSOA

Joxe Ramon Elortza
Lan banaketa
**Doinua: 10eko handiko
edozein doinu**

Langabezia goraka doa
lan puestuak urritu
haunditzen doan zulo beltza honek
denok irentsiko gaitu
alper bizkorak dagoeneko
kontuak atera ditu
ta bere esku baldin balego
pastela nola partitu
soldata gorde egingo luke
eta lana oparitu.

Bromak utzita heldu deiogun
gai honi behingoz serio
daukanak gabe dagoenari
errespetua zor dio
izan gaitezen esku zabalak
kontuak ez du balio
ez dezagula lana bihurtu
dirua dala medio
guztiona den eskubide bat
batzuen pribilegio.

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**
GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria

GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Su Gorria

San Juan sua eta herriko festak nahastuz (beste festa popularrak ahaztu gabe) hitz batzuk luzatu nahi ditugu. Gizarte honek, kultura kontsumo pasibo bat izatera bultzatzen du, pertsona ikusle soil bat bihurtuz. Honen aurrean, guk, gauzak egin, sortu, partehartu eta gozatu egin nahi dugu. Partizipazioa elkartasuna eta askatasuna aldarrikatuz.

Gora herri festak!

Karrozei zentsurarik ez!

Atzo, gaur eta biharko borroka, borroka bera da. Gaur gauez Euskal Herria argitzen duten su hautera botatzen zituzten lehen, gizon-emakume euskaldunak sorgin eta herexeak izatea leporatuz.

Garai hartan ere, beraien kulturari, beraien independentziari uko egiteko prest ez zeudenak hil arte torturatu zituzten. Garai hartan ere, naturarenganako begirune eta maitasunean oinarritzen zen elkartasunezko euskaldunon kultura, berekoikeria bultzatuko zuen sasi-kultura batez estaltzen ahalegin du ziren. Orduan ere saiatu ziren gu menderatzen.

Aintzinean kristautasunaren izenean egiten zituztenak, tolerantzia eta demokratizaren izenean egiten dituzte gaur egun. Lehen gurutzea zegoen tokian, lazo urdina dago orain.

Gaur egun ere, beraien saio konkistatzaileen aurka agertzen garenoi, errepresio,

kartzela, tortura eta heriotzaz ere erantzuten digute. Orduko herexeei, fanatiko eta erradikal deitzen diete orain. Justizia eta elkartasunean oinarrituko den mundu baten alde borrokatzen dugunok, antidemokratikoak omen gara. Abiadura Haundiko Trena, Autobia eta ingurugiroa suntsitzeko baino balioko ez duen Itoizko urtegiaren aurka gaudenoi, faxistak deitzen digute. Aintzian ere, esklabuen merkaturian botereak beltz-tratatarietara pertsonak erosteko biltzen ziren, gaur egun E.T.T.ak asmatu dituzte eta badirudi kateak eta zigorrak ez erabiltzea eskertu egin behar diegula.

Garai hartan pulpitoetatik eta gaur komunikabideetatik, gizarte honen kalte guztien errudunak, bizitza ere emateraino iritsi direnak di-rela esaten digute etengabe.

Hala eta guztiz ere eta eraso guztien gainera aurrera segiko dugu. Orain dela mila urte bezala, San Joan gaua ospatzera kalera irten gara, oraindik ere elkartasuna, berdintasuna eta askatasuna nagusi izango diren gizarteak lortuko dugulakoan baikaudede. Ez gaituzte isilduko udamuga kantuz eta dantzan ospatuz, herri bizia garela agerian uzten dugun atzean. Ez gaituzte geldituko, horrelako gauetan Irrintzi batek aske izan nahi dugula gogorazten digun bitartean.

Gure erabateko mespretxua azaldu nahi diogu herri

honetako udaletxe eta Juan Vicente Erauskin bere alkateari, San Joan Suaren inguruko festa hau antolatzeke inongo laguntzarik eman ez duenari. Eskerrik asko ordea hainbat tabernari, dendari eta herritarrei beraien dirulaguntzagatik.

Ez dio ez alkateak babesik emango bere iritzia, jarra eta ideologia defendatzera ez datorren inongo ekimenari. Baina zoritxarrez badugu aurten ere alkateak eta bere modukoek entzun nahiko ez duten salaketarik.

Pakea eta Normalizazioa; hainbeste erabiltzen diren hitz hauek aitzakitzat hartuz politika errepresiboa eta jasangaitza mantentzen dute, Pakea eta Normalizazioa oztopatuz hain zuzen ere. Ezin dira aintzakotzat hartu Pakearen izenean eta beraiek egindako legedia hautsiz, euskal presoak zapaltzen jarraitzen duten horiek: txantaiak, 60. artikulua ez aplikatzea, presoak Euskal Herritik milaka kilometrotara eramatea, zigorraren 3/4 beteta dutelako kalean egon beharko luketen 130 lagun.

Eta guzti honek helburu bakarra du; herri honetako seme-alaba kuttunenak fisiokoki eta moralki hondoratuz garaipen politiko-militar bat lortzea, herri honi oinarritzko eskubidea ukatuz: Autodeterminazioa.

Su Gorria taldea (Ordizia)

Kaixo goierritarak:

Murumendiko 6. eta 7. mailako ikasleak gara eta AEK-ko ikastaro bat egiten ari gara, euskararen alde. Gure asmoa euskaltegi honetara hurbilduz, euskara sakonago lantzea da. Ez pentsa euskaltegi honetan lan gogorrak egiten ditugunik, euskara landuz: jokuak, denborapasak, e.a. egiten ditugu.

Elkarri lagunduz euskara hurbiletik ezagutzen ari gara. Euskara hizkuntzarik zaharrenetarikoa bat izanik, ez dugu alde batetara baztertu nahi. Gure asmoa euskararen sustraiak zabaltzea eta aldi berean euskaldun herri jator bat osatzea da.

Gure asmoak beteko direlakoan, zuek ere hona hurbildu zaitezten animatzen zaituztegu. Espero dugu zuek ere asmo berdinekin etorriko zarete.

Besterik gabe, agurtzen zaituztegi txiste baten bidez:

Mutiko erdaldun bat arrantzan ari zen. Bi ordu ezer harrapatu gabe pasa ondoren esaten du:

- Yo me voy de aqui, aqui no pica nada.

Eta ondoan zegoen baserriar batek esaten dio:

- Lasai, lasai.

Orduan, mutil erdaldunak erabat haserre:

- Pues si las hay las pescas tú.

AEK eta Murumendiko euskaldun jatorrenak (Beasain)



☎ 88 55 00 ORDIZIA

Zurgindegi mekanikoa

JOSE M. YARZABAL

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxa: 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
OBRAK
ERREFORMAK**

TXANDAKA

Talde-lana

Ikastolan hasi eta Unibertsitateraino irakaskuntzan ikasle bezala izan dudana esperientzia metodo, estilo, jarrera eta izakera oso desberdinetako irakasleak izan ditut. Horietako zenbaitentzat talde-lana egitea taldekide batek lana egin eta besteek, kolperik jo gabe, izenpentzea zen. Beste zenbaitentzat ikasleek motibatuta lana egiteko eta ikertzaile-lanaren ondoren eduki garrantzitsuak ikasteko oso metodo baliagarria zen. Eta bazen irakasle multzo bat, oso gustoko metodoa ez izan arren, gure eskaerak onartu eta egiteko aukera eskaintzen ziguna.

Badakit talde batean eta bestean desberdin jokatu dela, desberdin funtzionatu dela, baina talde-lana burutzeko taldekide bakoitzak besteekin kontatu behar du, derrigorrez: norberak proposatzen duenak bestean onarpena behar du eta berak besteen proposamenak onartu behar ditu, lanean aurrera egingo badute.

Adostasun hori lortzeko proposamena ondo azaldu eta defendatu egin behar da. Beraz, talde-lanean hitz egiten, entzuten eta arrazoitzen ikasten da, besteak beste.

Nortasuna sano, natural eta egoki tajutzeko metodo hoberik ezagutzen al duzue?

Eskerrik asko talde-lanerako aukera eskaini eta lagundu didazueno eta ea metodo honi geroz eta leku handiagoa ematen diogun ikastetxeetan, etxeetan, elkarteetan... Gizarte indibidualista honetan bere lekua behar baitu, merezi baitu.

Joxepa Madariaga



Nola ligatzen duzu? Udaran errazagoa al da?



Laida eta Maria


**15 urte, ikasleak
legorretarrak**

Ez dugu ligatzen. Orain fetetan gehiago ligatzen da, jendea gogo gehiagorekin eta mugituagoa egoten baita. Ez daukagu ligatzeko errezetarik, norbaitek baldin badauka...

Jokin Goikoetxea

**15 urte, ikaslea
ataundarra**

Neska bati begia bota, pelmada piska bat eman, bere lagun bati galdetu neri buruzko iritzia eta ona bada, eskatu. Nahiko emaitza ona ematen du. Festeetan edanez gero lotsa gutxiago izaten da eta gehiago ligatzen da.



Iker Jauregi

**13 urte, ikaslea
ordiziarra**

Ez naiz nesken atzetik asko ibiltzen. Politak eta jatorrak direnak okupatuta egoten dira normalean. Udan gutxiago ligatzen da, dibertitzeko plana izaten baitugu mutilen artean.



GENERALI
Aseguroak

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 88 87 02
BEASAIN

ZALBIDE
SAGARDOTEGIA

Txitxarro eta sardinak
parrilan

☎ 65 21 76

ABALTZISKETA



A. IZIAR

IGELTSERITZA OROKORRA

✖ sukaldeak - komunak
✖ erreforma osoak
✖ aurrekontuak neurrira

☎ 88 24 23

ORDIZIA

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 88 17 00 - 88 17 04
BEASAIN

ZINEA



BEASAIN

'Sabrina' Ostirala 19 22:15; larunbata 20 19:30 - 22:15; igandea 21: - 17:00 - 19:30 - 22:15; astelehena 22: 19:30 - 22:15.



ORDIZIA:

'Las dos caras de la verdad'. Larunbata 20: 22:15; igandea 21: 19:30 - 22:15; astelehena 22: 19:30.

'Daniel el travieso'. Igandea 21: 16:45.

BERTSOAK

ITSASONDO:

Abuztuak 14, Joxe Agirre, Sebastian Lizaso eta Xabier Zeberio, beheko plazan, 13:00etan.

GABIRIA:

Abuztuak 14, S. Lizaso, Egaña, Mendiluze, Elorza, Sorozabal eta Munduate, 22:30ean, pilotalekuan.

MUSIKA

ITSASONDO:

Abuztuak 15, Gozategi, beheko plazan, 22:30ean.

ORDIZIA:

Uztailak 19, 'Los Charrros' mariachi eta 'Aquiariu' taldeak, Beti Alai pilotalekuan, 23:00etan.

ZERAIN:

Abuztuak 15, Imuntzo eta Beloki, 23:00etan.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Uztailaren 26ra bitartean, Marce Tenaren erakusketa, Aterpe Tabernan.

Uztailaren 27tik abuztuaren 16ra bitartean, Tere Arruabarrenaren erakusketa, Aterpe Tabernan.

ORDIZIA:

Uztailaren 19tik 31ra bitartean, XII. Ortazar Sariko lehiaketan aukeratuak lanak, Barrenan, 18:00etatik 20:00etara.

Uztailaren 19tik 31ra bitartean, Juan Antonio Luna artistaren pintura erakusketa, Barrenan, 18:00etatik 20:00etara.

IKUSENTZUTEKOAK

ZEGAMA:

Uztailak 23, 'Santiago bidea' ikusentzunezkoa eta hitzaldia, Kultur Etxean, 20:00etan.

BESTELAKOAK

EZKIO-ITSASO:

Uztailaren 22an, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak, 18:30ean.

MENDI IRTEERAK

Idiazabalgo mendizaleak:

Uztailak 26, 27 eta 28, Picos de Europa.

AZTIRIA AUZOA

Santa Marina jaiak

Uztailak 18:

12:00etan: Meza. Aritz Zaldua 'Sagase' trikitilaria.

Uztailak 20:

18:00etan: Bola eta toka. 21:45ean: Bertso jaialdia: Larrñaga, Narbaiza, Nerea Elustondo eta Axier Iriondo.

Uztailak 21:

10:15ean: Gabiriko Udalari ongietorria.

10:30ean: Meza.

12:00etan: Bola eta toka.

12:30ean: Gabiriako Goruntz dantza taldea.

13:00etan: Garmendia eta Igarzabal bertsolariak
18:30ean: Herri kirolak

LOINATZ

Taberna Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN



GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- ✕ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✕ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 88 44 00 - 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA

MUJIKA Jatetxea

- ✓ Menuak kartan
- ✓ Ezkontza eta janaldietan berezituak

☎ 80 15 07 - 80 16 99

Liernia Auzoa

MUTILOA



MUJIKA



BEASAIN

☎ 88 74 00

EZKIO-ITSASOKO ALEGI RUZOR

Madalena jaiak

Uztailak 20, larunbata:

21:00etan: Herri afaria.

Ondoren: Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

Uztailak 21, igandea:

12:45etan: Meza Nagusia.

18:30ean: Pilota partiduak herriko gazteen artean.

21:30ean: Musutruk taldeak alaituriko erromeria.

Uztailak 22, astelehena:

12:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren: Zelai-Ondo elkartean pixkolabix txiki bat.

18:30ean: Takolo, Piritx eta Porrotx pailazoe-kin, umeentzako jaialdia.

Ondoren: Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.



ATAUNGO ARGAZKI LEHIAKETA

Ataun postalen bidez promozionatzeko argazki lehiaketa antolatu du Udalak. Ataunen bil daitezkeen gai berezienak edo eta erakargarrienak erakustea da asmoa. Argazki irabazle eta hautatutako beste batzuekin postalak egingo dira. Gai posibleak hauek dira: antropologia, mitologia, Joxemiel Barandiaran, baserria, paisaia, eskal giroa, Aralar, artzantza, kaleak eta eraikuntza historikoak. Bakoitzak gutxienez 3 argazki eta gehienez 9 aurkeztu beharko ditu. Koloretan nahiz zuri beltzean. 18x24 cm dituen argazkia 24x32 dituen kartulina batean erantsita. Sariak: 60.000 pezeta. 25.000 eta 15.000 pezeta. Abenduaren 1a baino lehenago aurkeztu behar dira.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Salerosketak:

☐ Sofa ia berri bat salgai. Dei arratsaldeko 8.00etatik 10.00etara, 889687 telefonora.

☐ Masaje edo estetizista kamila-mahaia saltzen da. Oso gutxi erabilitakoa. Deitu eguerdian edo gauean. 881734.

☐ Eskopeta errepetidora salgai, Franchi markakoa. 25.000 pezetan. 88 18 02.

☐ Hiru zakurkume, Setter Perdiger arrazakoak, saltzen dira. Hiru hilabetekoak. 16 04 51.

☐ Suzuki RM 125 motorra salgai, 225.000 pezetan. 88 18 02 eguerdian deitu.

Bestelakoak:

☐ Katakume mordoak oparitutako nuke gustora. 187002 Ixa.

☐ Fotokonposizio lanak egiten ditugu. 72 02 95 (Kontxi). Zumarraga.



GOARDIAKO FARMAZIAK

19: Urbizu.

20-21: Cuesta.

22: Atorrasagasti.

23: Azpilikueta.

24: Jauregi.

25: Larnaga.

26: Cuesta.

27-28: Jauregi.

29: Arriola.

30: Urbizu.

31: Atorrasagasti.

Abuztuak 1: Azpilikueta.

2: Jauregi.

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
☎ 88 40 57 ☎ 88 80 29
ZALDIBIA BEASAIN


HERRI BATASUNA
*Ordiziar eta bisitari guztioi jai
zeriontsuak opa dizkizuegu*
ORDIZIA



IKASTEK AKADEMIA

KALITATEA eta PROFESIONALITASUNA
96KO UDA

✓ UDA IKASTAROAK

- ☐ Kurtsoan utzitako gaien erreperaketa
- ☐ Maila eta arlo guztiak
- ☐ Banakako atentzioa

✓ UNIBERTSITARIOA

- ☐ Kalkulua eta kontabilitatea
- ☐ Estatistika
- ☐ Matematika

✓ HIZKUNTZAK

- ☐ Ikastaro trinkoak
- ☐ Ingelesa, Frantsesa, Alemaniera
- ☐ Irakaslego trebatua

☎ 16 01 20
Joan Iturrilalde, 5 BEASAIN



MUJICA LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 88 11 94
ORDIZIA



GABIONA

Rodamientos, S. A.

Biltegi eta bulegoak:

Goierrri k. 4

Goierrri K. z/g

☎ 88 45 00 Faxa: 88 99 06

ORDIZIA

SIGLO XX

TABERNA

JATETXEA

Festa onak pasa!

☎ 88 10 96 Elkano, 6
ORDIZIA



Zure edertasuna
zaintzen dugu!

- ✓ Solariuma
- ✓ Depilazioa
- ✓ Garbiketak
- ✓ Azkazal postizoak
- ✓ Makilaia
- ✓ Manikurak

Aloska

EDERGINTZA - USAINDEGIA

Domingo Unanue Plaza, 2
☎ 88 24 10 ORDIZIA

ALDASORO

Taberna - Jatetxea

Festa onak pasa!

Urdaneta, 27 ☎ 88 00 23 - 88 11 40 ORDIZIA

Unanue GOZOGINTZA

Nagusia, 17 ☎ 88 15 51
Santamaria, 10 ☎ 88 11 49
J. M. Barandiaran, 9 ☎ 88 88 36
Obradorea:
Filipinas, z/g ☎ 88 12 65

ORDIZIA



GOITAGI OBINDEGIA

Ogigintzan onenak!

Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 160501

- ◆ Egurrezko labean egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

Barandiaran Taldea, 2
ZALDIBIA ☎ 880737



- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegitratzea
- Altzarigintza industrial
- Bulego altzariak

☎ 88 77 90 Mallotz, 25. pab.
Faxa: 88 82 67 ORDIZIA



AZURMENDI

Harategi - Urdaitegia

San Inazio, 6 ☎ 16 16 74 - 16 13 28 BEASAIN
Victor Mendizabal, 2 ☎ 88 47 65 ORDIZIA



HIDALGO

BITXITEGI - ERLOJUTEGI

Legazpi Kalea, 4

☎ 88 04 06

ORDIZIA

ERREZETA



Mari Jose Arregi
Olagi sagardotegia
Altzaga

BAKAILAOA LABEAN

Osagaiak: bakailaoa (gezaututa), baratxuria, perrejila, ogi arrailatua, limoi-ura eta ardo txuria

Tartera bat oliba olioarekin bustitzen da. Bakailaoa bi ilaretan jarri. 'Preparatu' (baratxuria, perrejila, eta ogi arrailatua, dena txiki-txiki egin eta ondo nahastuta) geruza batekin estali. Beste bi ilara bakailao gehitu eta berriro 'preparatu'-z estali. Azkenean, limoi-ura eta ardo txuriarekin bustitzen da. Labean sartu 15 bat minutuz eta jateko prest dago.

AHOLKUA



Miren Etxezarreta
Iorazaintzan aditua

Landareek ura behar beharrezkoa dute eta ureztapen egoki batek asko lagunduko die. Lurraren osaketa, landare motak eta beste hainbat faktore hartu behar dira kontutan. Eguneke zein momentutan ureztatu, horrek ere bere balioa dauka. Jarraian dituzu aholkuak.

Lurraren osagaiak desberdinen arabera ureztatzen da. Hondarrez edo harez osatzen badi-ra, oso arina denez, ura oso azkar hartzen du. Buztina, geldi-geldi bustitzen da eta ur kantidad handia eskatzen du.

Landareen ureztapena

Urtean zehar desberdin ureztatu behar da:

* **Udazken** eta udaberrian, goizean ureztatzea komeni da. Zergatik? Azaleko lurrinketak hozberoa mantentzeagatik.

* **Udan** egokiagoa da iluntzean ureztatzea, goizeko lurrinketa baino lehen lurrak ura har dezan.

Behin ere ez ureztatu eguzkitan. Zergatik? Urak hostoetan lupa egiten du eta landarea erre egin liteke.



Landarea inoiz ez ureztatu eguzkitan. Urak hostoetan lupa egiten du eta landarea erre egin daiteke.

Landareek oporrik ez

Landareek ura behar dute bizitzeko. Zuk oporrak badituzu ere, landareek ez. Hori dela eta, oporretara joan aurretik ez ahaztu landarea ureztatzea. Bi ureztapen sistema daude:

● Kotoizko hari bat erabiliko dugu. Hariaren mutur bat lorontzian sartu behar da eta bestea urez betetako botila batean. Hariaren bitartez edango du landareak. Haria plastikozko hodi baten barnean sartu daiteke, hodia hariaren euskarritzat erabili eta, bide batez, lurrinketa galerazteko.

● Landare bat baino gehiagoren hezetasuna batera mantendu daiteke. Horretarako, landare guztiak oihal baten gainean jarriko ditugu eta oihalaren muturrak urez betetako ontzi batean sartuko dugu.

URBITARTE

sagardotegia



- Egunero irekita, nahiz eta sagardotegi denboraldia bukatu
- Sagardotegiko menuaz aparte arraina ere egongo da
- Berezitasuna txuleta eta sahieskietan

Erreserba telefonoa: 18 01 19

Ergoiena Auzoa

ATAUN

OIANGU

TABERNA



☎ 88 30 03

Euskalerrria z/g

ORDIZIA



ORDIZIA

BIDEO KLUBA

Domingo Unanue, 1 ☎ 88 79 19
ORDIZIA

JOAKIN ALDANONDO

BULKANIZATUAK

Gurpil lanak, alineazioa
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak

Errota Polygonoa (IDIAZABALgo sarreran)

☎ 80 02 57



Oporrak

GOIERRITARRA aldizkariak oporrak hartuko ditu abuztuaren 26ra bitartean. Hurrengo aldizkaria irailaren 6an kaleratuko da. Ondo pasa.

Inkesta

GOIERRITARRA aldizkaria inkesta bat ari da egiten. Harpidetzaren hazkundeak sortzen dituen gastuei aurre egiteko zenbait aukera ari gara aztertzen, erakundeeetatik datorren diru-laguntza igotzen ez dela ikusirik. Aukera bat aldizkariak duen kostuaren zati bat, urtean 1.500 pezetako kuota, harpideek ordaintzea litzateke. Baina irakurleon iritzia jaso nahi dugu, erabakiak hartu aurretik. **Beraz, inkesta orria iritsi zaizue-n, bete eta GOIERRITARRA bidaltzea eskertuko genizuke. Mila esker erantzuteagatik.**

Josetxo Zeberio aske

Uztailaren 6an, aske utzi zuten Josetxo Zeberio beasaindar errefuxiatua, Costa Ricako epaileek. Costa Ricatik ateratzeko debekua jarri



Eroskiko gurdi berziklatuak

Ordiziako Eroskik munduko lehen erosketa gurdi berziklatuak aurkeztu zituen uztailaren 1ean. Berziklatutako plastikoz egindakoak dira eta pieza bakarrekoak. Nafarroako Policad enpresak diseinatu du. 50 gradu eta zeropeko 20 gradu bitarteko tenperatura jasan dezake. Orain arteko metalezkoak baino hiru aldiz arinagoak dira, erabilterre-zagoak. Ez dira erdoiltzen, autoei ez die arrastorik egiten.

Datorren urtetik aurrera, txip baten bitartez, gurdian dauden produktu guztiak identifikatu eta kontua ateratzea posible izango da. Policad enpresaren esanetan, era hone-tan, jende ilarak murriztuko dira.

diote beasaindarrari. Zebe-rio ekainean atxilotu zuten dokumentazio faltsua zera-malako. Askatasun eguna atzeratu egin da 1991n dese-gin zen ETako komando batekin ustez zerikusia zuen susmoa agertu baitzuen Interpolek. Dena den, Ester Agirre abokatuaren esane-

tan, Espainian ez dago Zeberioen aurkako kausarik irekita.

Mertxe Galdos

Ezkioarra da euskal preso-en kolektiboak Espetxe Era-kundearekin mintzatzeko izendatutako 7 kideetako bat. Preso guztiak Euskal

Herrian batzeaz eztabaida-tzea da helburua. Eztabai-datzen hasteko baldintza izendatutako 7 presoak kar-tzela berean biltzea da.

Makinistaren errua

1993an Lazkaibarko paso nibelean trenak harrapatu zituen bi emakumeen ka-suan, Renfeko treneko ma-kinaria kondenatu egin du Donostiako Entzutegiak. Hildakoen senarrei 3 milioi-na pezeta eta semeei milioi bana eman beharko die. Hainbeste jende ibiltzen den tarte horretan, trena azkarre-gi zihola esan du Entzute-giak.

Idiazabal-Mantxako gazta

Idiazabal Gaztaren Kofradia eta Mantxako Gaztaren Kofradia senidetu egin ziren uztailaren 7an, Ordizian. Ordiziako Kofradiak 7. ka-pitulua zuen San Fermin egunekoa eta senidetzeaz gain, 4 lagun kofrade berri izendatu zituzten. Hala nola, Jose Mari Elozegi (Elozegi Bodegakoa), Mikel Gar-mendia 'Kutturru' aktorea, Jesus Mendizabal 'Kaska-gorri' artzaina eta Gaizka Macho sukaldaria.

MUNDUATE

Erlojutegia

100 urte baino gehiago
Goierriren zerbitzuan

☎ 88 12 72
Nagusia, 1
ORDIZIA

TAA
MOA
YEO

FERNANDO ARANA LEKUONA

Jai zoriontsuak guztioi!

Amerika, 2 ☎ 88 89 80

ORDIZIA

IRURENA

Lentzeria - Mertzeria


Urdaneta, 29 ☎ 88 04 47
ORDIZIA



Umeen arropa denda

FESTETAN ONDO IBILI
ETA OPORRAK ONDO PASA!

☎ 16 12 39
Santa Maria, 13
ORDIZIA



Zumalakarregi museoaren eskaintza

Bi ibilbide berri proposatzen ditu Zumalakarregi museoak:

● **Trenaren etorrera eta Ormaiztegiko Zubiaundia:** zubi zaharraren garrantzi historiko eta monumentala agertarazten du ibilbide honek. Lehenik Zumalakarregi museoan bertan, trenik gabeko mundua azalduz; gero Kultur Etxean erakusketa xume bat eta 3 minutuko bideoa ikusi ondoren, zubi zaharra eta berria bisitatuko dira. Adin eta mota guztietako jendearentzat dago pentsatuta. Bi ordu nahikoa dira. Azpeitiko Euskal Burnibidearen museoarekin ere osa daiteke ibilibidea.

● **Euskal historia eta ohiturak:** Zumalakarregi museoak eta Zerainek egun osorako ibilbide bateratua proposatzen du, XIX. mendeko bizimodu tradizionala era atsegienean erakutsiz. Goizez Zerain ezagutzen da: Museoa, eliza, jauregia, San Blas emirra, XVIII. mendeko kartzela. Hamaketakoan bertako produktuak dastatzeko aukera dago. Arratsaldean, Zumalakarregi museoan jeneral karlista eta bere garaia ezagutu ahal izango dira. Egun osoan ibilibidea da, publiko heldu eta talde antolatuentzat bereziki. Bisita gidatuak, dastaketa eta bazkaria barne, 1.500 pezeta. Promozio honek irailaren 7ra arte balio du.

Jose Antonio Arizkorreta

Gasteizko Kultura Sailak sortu duen Euskararen Aholku Batzordean, Arizkorreta CAFeko zuzendaria hartuko du parte.

Ama Birjina Goierri

1931n Ezkion izan ziren Ama Birjinaren agerpenei buruzko liburua kaleratu du William Christian antropologo estatubatuarak. Momentuz, ingelesez bakarrik argitaratu da liburua. Gaztelazko edizioa datorren urtean kaleratzeko asmoa dago, Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz.

Ala Pivot

Ordiziako Lagunarteko futbol txapelketako irabazlea dugu Ala Pivot taldea, Txiki taldeari, penaltietan irabazi ondoren. Ezusteko emaitza izan zen, Txiki azken 3 urteetako txapelduna baitzen. San Fermin egunez, uztailaren 7an jokatu ziren finala eta finalaurrekoa. Haydaos eta Loretos taldeek jokatu zuten 3. eta 4. postua eta Haydaos izan zen garaile. Txapelketako goleatzaile nagusia Urbitarte sagardotegia taldeko Aitor Calvillo izan da.



AEK-koen bisita

Uda honetan euskara hobetzen eta lantzen ari diren Beasaingo Murumendi ikastetxeko ikasleen bisita izan genuen. Hau eta bestea galdetu, argazkirako txintxo jarri eta euren lanean jarraitu zuten. Lanaren emaitza ona izan dadila!



Pintxoak
Ogitartekoak
Bazkariak
Afariak

☎ 88 00 35

ORDIZIA

LIRAIN
PUB

Festa onak pasa!

Etxezarreta, 5

ORDIZIA

Kiská
PUB

Santa Maria

ORDIZIA



The Clover School of Languages

Domingo Unanue Pl., 5

☎ 16 20 16

ORDIZIA

Festa zoriontsuak opa dizkizuegu denoigure lehen urteurrenean!

ORMAIZTEGIKO KARRAMARRO ELKARTEA DUELA BI URTE SORTU ZEN:

Bertako ibai karramarroaren alde lanean

Duela asko gabe gure errekek 'bertako karramarroz' beteak genituen. Orain, ordea, lekuri ezkutuenetan besterik ezin dira aurkitu. Izurrite bat izan da galera horren arrazoi nagusia. Ormaiztegiko Karramarro Elkartekoak bertako karramarroa babesteko eta berriro zabaltzeko lanean ari dira.



Elkarteko zenbait kide: Inazio Olaizola, Luis Juan Unanua, Josu Arzeluz, Alex Olaizola eta Patxi Acedo.

**G.- Zer gertatu da hemen-
go betiko karramarroare-
kin?**

E.- Auzia Europa guztikoa da. Interes ekonomikoengatik zenbait lekutan Iparramerikatik ekarritako karramarro gorriak sartu zituzten. Karramarro horiek beraiekin birus bat zekarten, eta hemengo karramarroek ez zuten birus horren aurkako babesik. Izurrite horrek (afanomikosia) hemengo karramarro gehienak desagertarazi ditu, eta karramarro gorriak nagusitu dira, ekologikoki hemengoetatik oso desberdinak direnak. Horrez gain, karramarro hauek bizi diren ingurunea hondatzeak ere izan du eragina.

G.- Zer neurri hartu dira egoera horren aurrean?

E.- Egoeraren larria ikusiz orain urte batzuk instituzioetatik ahalegin bat egin zu-

ten: Iparrameriketako beste karramarro mota bat (*karramarro seinaleduna*) sartzen saiatu ziren --hemengoaren ezaugarriekin antz handiagokoa-- karramarro gorrien zabal-kuntza oztopatzeko asmo-tan. Baina, dirudienez, karramarro-mota horrek ere birusa zabaltzen lagundu du.

Egoera horren aurrean, bertako karramarroa zaindu eta ugaltzearen aldeko apustua egin da, bereziki ibai-arro nagusietatik urrun dauden lekuetan, izurritea hara iritsiko ez delakoan. Ormaiztegiko Karramarro Elkartearen helburua ere hori da: 1994an sortu ginen, Eusko Jaurlaritzak onartutako elkarte kulturala gara, lan-eremutat Oria

ibaiaren arro guztia hartzen dugu, eta bertako karramarroa babesten eta berreskuratzen egiten dugu lan.

rrela uraren osasun-egoera hobetuz.

G.- Zer lan egin dituzue orain artean?

E.- Oria ibaiaren arroko erreken azterketa izan da orain arteko lanik nagusia: bertako karramarroak non aurkitzen diren zehaztu, eta etorkizunerako

hondatu gabeko errekek zein diren ikusi. Itxaropenerako bidea ematen duten datuak lortu ditugu gainera: erreka nagusietatik kanpora eta gizakion eraginak hondatu ez dituen lekuetan oraindik badira bertako ka-

"Iparramerikatik ekarritako karramarroek birusa zekarten, eta hemengo karramarroek ez zuten birus horren aurkako babesik"

G.- Zer garrantzi dute bertako karramarroek ibaiarentzat?

E.- Usteltzen ari diren gai organikoen hondakinak kentzen dituzte ibaien hondoetatik eta uraren eutrifikazioa gutxitzen dute, ho-

INYELEC

MoviLine

MoviStar

Banatzaileria ofiziala

16 07 85

lurre Auzoa

OLABERRIA

**OTEÑE
ERRETEGIA**

Bazkari, afari eta edozein ospakizun
ingurune paregabea

Larraitz bidea



GAINTZA

88 98 48

rramarroak. Horrez gain, gizarzarteari arazoaren berri ematen ere saiatu gara.

G.- Zer arrisku nagusi dituzte geratzen zaizkigun bertako karramarro bakanek?

E.- Hiru alorretan banatuko genituzke guk. Batetik, ibaien eta ibai bazterren hondaketa, karramarroari bere bizi-ingurunea desegiten diona.

Bigarren, askotan borondate txarrik gabe egiten dugun kaltea: sarritan gertatzen da Barrendiolako urtegian edo Oianguen edo beste edozein ibaitan karramarro

gorri bat hartu, etxera eramane, eta gero gertuen daukagun erreka bueltatzea. Azken erreka horretan bertako karramarroek oraindik bizirik badiraute, karramarro gorri horrek izurritea zabalduko du, eta bertako karramarro guztiak hilko dira.

Eta azkenik, ezjakintasunez --eta zenbaitetan jakinaren gainean-- karramarroak helburu gastronomikoetarako hartzen dituztenak. Bertoko karramarroa babestutako espeziea da, hartzeagatik legeak isun handiak ezartzen ditu, baina oraindik badira hartzen jarraitzen dutenak.

G.- Zer proiektu dituzue etorkizunerako?

E.- Lehenik karramarro haztegi bat jarri nahi genuke martxan, Aldundiaren lan-kidetzarekin. Proiektua nahikoa garatua dago. Ziurrenera putzu bat egingo da, Arabako esperientzia batean oinarrituz.

Eta bigarren, eta aurrekoa bezain garrantzitsua, heziketaren alorra landu nahi genuke. Eskoletarako bideo hezitzaile baten asmoa nahikoa aurreratua daukagu, baina garesti samar jotzen du. Literaturari lehiaketa bat, argazkilehiaketa bat, karramarroen bizimodua agertuko duen erakusketa bat... ideia asko darabiltzagu buruan: dirua eta laguntza behar.

G.- Zer itxaropen duzue etorkizunerako?

E.- Baikor agertzen gara.



Bertako karramarroa txikixeagoa izaten da, pintzen azpiko alde zuria izan ohi da.

Arg.: Txema Ainz

Karramarroen ezaugarriak

✓ **Karramarro gorria**, izenari men eginez, gehienez garrantza izaten da, ardo kolorekoa, baina kolore marroi-berdeska dutenak ere aurkitzen dira, nahiz eta halere beti puntu gorriaren batzuk izan.

✓ **Seinaladun karramarroa** gehienez marroia da, baina kolore ilunagoa ere izaten dute batzuek, eta bi pintzak elkartzen diren lekuan orbain zurizka bat izan ohi du seinalea.

✓ **Bertako karramarroa** aurreko biak baino txikixeagoa izaten da askotan, eta kolore askotakoak daude: marroiak, beltzak, arre-berdeskak; urdinskak ere bai. Aurreko bietan pintzen azpiko alde gorria zen, baina bertako karramarroetan zuria izan ohi da.

Europako iparraldeko zenbait herritan (Suedia, Norvegia, Ingalaterra...) dagoe-neko berreskuratu dute, eta Araban ere egoerari buelta ematea lortu dute. Ez dugu ikusten, beraz, hemen zergatik ezin izango dugun lortu. Baina, jakina, instituzioen eta bestelako gizarte-elkarte guztien partaidetza beharrezkoa da horretarako (Ingalaterran Parlamenturaino eramane zen auzia), bestela jai dugu.

Iñaki Amundarain

CUESTA

oihaldenda

Kortinak, alfonbrak, etxeko arropak
Oihalak

Plaza Nagusia, 4 ORDIZIA

ILEAPAINDEGIA

AGURTZANE

Urdaneta, 42 - behea

☎ 88 19 50

ORDIZIA

Aramba

MERTZERIA • MIHISEDENDA

JOXE MIGEL BARANDARAN ENPARANTZA, 3 - Tel. 88 76 15
ORDIZIA



Opilak
Kafeak
Freskagarriak

☎ 88 90 98

Domingo Unanue, 5 ORDIZIA



GOIHERRI, S. L.

Iturgintza

SANITARIOEN INSTALAZIOA, ITURRIAK, BAINU-
KO ALTZARIAK, BEROGAILU ETA GASA

Festa zoriontsuak opa dizkizuegu denoi!

Urdaneta 24 ☎ 88 11 57 ORDIZIA

Jaien egitarauak

Uztailak 19, ostirala:

19:00etan: Koadrilen arteko saskibaloitxo txapelketaren finala, Beti Alai pilotalekuan.

19:00etan: Alai Hirukotea, Jubilatuen egoitza.

22:00etan: 'Ordizia' antzerki taldeak, 'Melocoton en almibar' lana aurkeztuko du.

23:00etan: Danborrada-ko kantineren aurkezpenean, 'Los Charros' mariachi taldearekin eta 'Aquarium' musika taldearekin, Beti Alai pilotalekuan.

Uztailak 20, larunbata:

12:00etan: Haurren egunaren hasiera adieraziz suziri eta bonben jaurtiketa.

19:00etan: Haur animazioa: pottokak, bigantxak...

20:00etan: Beti Argi bandarekin kalejira.

22:30ean: Suzko zezena Arboledan.

23:00etan: Haurren moztar dantzaldia, Beti Argi bandarekin, Beti Alai pilotalekuan.



Uztailak 21, igandea:

9:00etan: Goizeresia Ordiziako txistulariekin.

10:45ean: Haurren alkate jaun-andreei harrera, Udaletxean.

11:00etan: Meza.

12:00etan: Haurren ohizko aurreksua, Plaza Nagusian.

12:30ean: 'XII. Ortazar Argazki Lehiaketaren' sari banaketa, Barrenan.

16:45ean: 'Daniel el travieso' filmea haurrentzat, dohainik, Herri Antzokian.

20:00etan: Haurren danborrada.

Uztailak 24, asteazkena:

12:00etan: Txupinazoa.

12:15ean: Buruhandi eta Erraldioen Alardea, txistuz eta trikitixaz lagundurik.

16:30ean: Koadrilen arteko herri-kirolak, Joxe Miel Barandiaran plazan.

21:30ean: Ohizko danborrada. Ondoren 'Koxkola' txaranga ibiliko da kalez kale.

23:30ean: Boxeo jaialdia Beti Alai pilotalekuan.

Uztailak 25, osteguna:

8:30ean: Laguntasuna Rondailaren goizeresia.

13:00etan hasita: Nazioarteko LXXIII. Villafranca Txirrindulari proba.

19:00etan: Larruzko pilotaz pala partiduak, Beti Alai pilotalekuan.

19:00etan: Erraldioen alardea, Alde Zaharrean eta Urdaneta kalean.

23:30etik goizaldera arte: 'Iruña Banda Orquesta' eta 'Koxkola' txaranga, Plaza Nagusian.

23:30etik goizeko 5.30ak arte: 'Ostadar' taldearekin moztar dantzaldia, Beti Alai pilotalekuan.

Uztailak 26, ostirala:

6:00etan: Ohizko goizaldeko danborrada. Ondoren, txokolate jana, Arboledan.

8:30ean: Goizeresia Ordiziako txistulariek eta trikitixak alaituta.

9:00etan: Irungo Udal Musika bandaren kalejira.

11:00etan: Meza.



- Eguneroko menua
- Asteburuetan afariak kartan

☎ 88 39 60
Gudarien Etorbidea
ORDIZIA

SARRI Tabernak

festa zoriontsuak opa dizkizue



Etkezarreta K. ORDIZIA

ARANTXA taberna

PINTXO ETA
OGITARTEKO
BEREZIAK

☎ 88 72 46
Ordizia Kalea, z/g
ORDIZIA



12:15ean: Agintarien soka-dantza, Plaza Nagusian.

13:00etan: Irungo Udal Musika bandaren kontzertua, Plazan.

17:00etan: Txirrindu gimkana neska mutikoen-tzat, Joxe Miel Barandiaran plazan.

18:00etan: Eskuzko pilota partiduak, Beti Alai pilotalekuan. **22:30ean:** Bieli Rossi Bielorrusiako folklore konpainiaren saioa, Domingo Unanue plazan.

23:30etik 3:30ak arte: 'Metropolis Orquesta' eta 'Kalejira' txaranga, Plaza Nagusian.

23:30etik 4:00ak arte:

Iratxo taldearekin dantzaldia, Beti Alai pilotalekuan.

Uztailak 27, larunbata:

11:00etan: Santanazaleen meza, Parrokian.

12:00etan: Santanazaleen ohizko Esku-dantza, Plaza Nagusian.

12:30ean: Koadrilen irteera.

21:00etan: Kalejira Beti Argi bandarekin.

23:30etik 3:30ak arte: 'Welcome Orquesta' eta 'Kalejira' txarangak, Plaza Nagusian.

23:30etik 4:00etara: Almen taldearekin dantzaldia, Beti Alai pilotalekuan.

Gaztetxean

Uztailak 20: Futbolin txapelketa, **16:00etatik aurrera.** Inskripzioa egun berean, 200 pezeta, bikoteko. Saria: afari eder bat eta bi kamiseta. **23:00etan** Alaitz eta Ainitzerekin kantaldi herrikoia.

Uztailak 21: **23:00etan**, suzko malabarak, zankak... kalean zehar, OGaren eskutik.

Uztailak 24: **21:00etan** bertso afaria eta ondoren Zigor Gazkezen eskutik kantaldia.

Uztailak 25: **23:30ean**, 'Agostinho memoriale'-ri buruzko diapositiba emanaldia, Etxezarreta kalean.

Uztailak 26: **9:00etan** gosaria: txistorra, gazta... **23:00etan:** Salitre antzerki taldearen 'Riko, riko, riko, goxu, goxu, goxua' antzezlan.

Txoznetan

Uztailak 24: Preso eta errefuxiatuen eguna. **12:00etan** txupinazoa. Ondoren, poteoa, txaranga, trikitixa eta bertsolariekin. Jarraian herri bazkaria. **19:00etan** omenaldia preso senideei. **1:00etan** manifestazioa.

Uztailak 25: Triki ta Ke taldea eta bi bertsolari, txoznetako tablatuan. Antolatzaile: AEK - Egunkaria.

Uztailak 26: Bideo emanaldia, KASen eskutik eta Askapenaren erakusketa. Biak txoznetan.

Uztailak 27: Koiuntura, **19:00etan**, txoznetan

ALAI

**Taberna
Kafetegia**

*Festa zoriontsuak opa
dizkizuegu denoi*

**Urdaneta, 2
ORDIZIA**

Arkupe

tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredolak
Mantak - Malndireak - Mahai oihalak
Toallak - Gortinak eta osagalak

J. M. Zeberio **J. M. Barandiaran Plaza**
☎ 88 00 84 **ORDIZIA**

AMONANE



Nagusia, 30

ORDIZIA



JOS & BEL

ILEAPAINDEGIA

- Azken teknika eta nobedadeak
- Zure ilea eguzkitik babesteko tratamendu bereziak

Urdaneta, 15

☎ 88 82 52

ORDIZIA

*Presio altuko
solariuma*

Oroith abesbatza Italiatik bueltan

Uztailaren 7tik 11ra Italiako Goriziako Abesbatzen Seguizti Nazioarteko Lehiaketan izan zen Oroith abesbatza. A kategoriakoa da, Tolosan egiten den lehiaketaren maila berekoa. 13 abesbatzek hartu zuten parte. Ordiziarrez gain, Errusia, Lituania, Estatu Batuak, Italia, Txekia eta Estoniakoak ere izan ziren. Ahots eta teknika mailan oso maila ona izan zela adierazi digute Oroithekoek.

3 modalitate izan ziren lehiaketan. **Folklore:** abesbatza bakoitzaren jatorriko abestiak, kasu honetan Euskal Herrikoak, interpretatzea; **Polifonia:** garai ezberdinetako obrak in-

terpretatzea; eta **Proiektu programa:** garai edo autore jakin bat oinarritzat harturik, zenbait obra interpretatzea. Oroithen kasuan, Georgy Örbán hungariar konpositorearen obrak kantatu zituzten.

Folklore eta polifonoan txukun aritu ziren ordizia-

rrak, gustora gelditu ziren egindako lanarekin. Proiektu programan, ordea, nerbioak tarteko zirela, "ez zitzaigun erabat ondo aterra", adierazi digute. Saririk gabe itzuli dira Ordiziara, baina oso esperientzia positiboa bizi izan dute.



Oroith abesbatzako partaide guztiek ezin izan dute Italian egon. 25 joan ziren.

Azaroan bi saio

Astebeteko bidaia honen ondoren, herriko jaiak pasatu eta hilabetezko oporren ondoren, berriro gogor lanean hasiko da Oroith abesbatza. Izan ere, azaroan bi emanaldi izango baitituzte: Tolosan, beste 2 abesbatzekin batera, Gorritiren mezan parte hartuko dute. Getxon ere, beste kontzertu bat eskainiko dute, azaroan bertan.

Bukatzeko, Oroith abesbatzakoek gonbitea luzatu nahi die, kantatzea gustatzen zaienei. Irailetik aurrera, ostiraletan gaueko 9etatik aurrera eta larunbatetan arratsaldeko 5etatik aurrera, Barrenan izango dira entseiatzen.

EZKURRA ATEAK

Ateen ezartze eta salmenta
Tarima eta parketak



☎ 16 07 50 Domingo Unanue, 2
Faxa: 88 09 13 ORDIZIA

MIAMI kafetegia

Etxezarreta kalea
ORDIZIA



MARKOZTATZE TAILERRA

KOADROAK, ISPILUAK,
ARGAZKI-MARKOAK
IRUDIAK, GRABATUAK

Urdaneta, 52

Tfnoa. eta faxa: 16 18 71
ORDIZIA



INPRIMATEGIA

URDANETA

KOLOREZKO OFFSETA - FOTOKONPOSAKETA - TIPOGRAFIA
DISEINU GRAFIKOA ORDENAGAILUZ

Urdaneta, 26 ☎ 88 04 46 Faxa: 16 14 07 ORDIZIA



JOSUNE ESTETIKA ZENTRUA

Jai zoriontsuak denoi!

J. M. Barandiaran plaza, 3
☎ 88 28 88 ORDIZIA



✱ **Tratamendu bereziak:** aknea, liftinga, estimulazioa eta makilaje iraunkorra.

✱ **Kontsulta medikua:** gizentasuna, barizeak, liposukzioa eta zirujia estetikoak

Zure ezkontza egunean diztiratsu egon zaitezzen tratamendu guztiak ditugu.

Soka-dantza: tradizioa berreskuratu nahian

Ia heltzeaz dauzkagu aurten ere Santa Ana eta honetan, normalean hala gertatzen ez bada ere, aldaketaren bat soma daiteke festa-egitarauan. Aurrekontua jeitsi bada ere berri pozgarri batekin egin dugu topo, agintarien soka-dantzarekin hain zuzen. Baina zer da eta zer adierazi nahi du dantza honek? Hau jakinteko asmoz Juan Antonio Urbeltz Ikerfolk-eko ikerlariarengana jo dugu.

Ikerfolk Goierriren ere tradizioa berreskuratu nahian dabil eta horretarako Juan Inazio Iztuetaren lanetan oinarritu da. Honen arabera ba omen zen garai batean Goierri (eta baita beste eskualdeetan ere) festetan dantza egiteko ohitura. Urteen poderioz ohitura hau galduz joan da eta nahiz eta oraindik ere soka-dantza dantzatu, ez da garai batean zuen funtsa berberarekin egingen.

Bilakera

"Dantzatzea denek egiten zuten iharduera zen. Orduan sokaren metaforapean egiten zen eta hortik datorkio soka-dantza izena. Gero metafora erotikoago bat hartu zuen, esku-dantzarena, alegia. Bikoteek elkarri eskua hartuta



Santanazaleen antzeko tradizioa berreskuratu nahi da.

egiten zuten dantza, honela dantza-katea sortuz" Urbeltzek azaldu digunez. Baina eskuek garai hartan nahiko zentzu erotikoa zuten gaizki ikusia zegoen garaiko jendearen artean. Gazteek eskuak erabiltzen zituzten sekretuki bikoteari maitasuna adierazteko. Eta hau are okerrago ikusia egon zen dantza eliza barruan egiten hasi zenean, orain bi mende inguru, hain zuzen. Orduan neska eta mutikoak banandu eta eskua-aren harremana amaitu zen. Orduan mintzamina beharrezkoa bihurtu zen eta honekin akabo sekretuak.

Bilakaera ez da nolanahikoa izan, beraz. Aurrena soka-dantza, ondoren esku-dantza, gero zapi-dantza eta

azkenik berriro ere soka-dantza. Hor, Iztuetaren arabera badago beste bariante bat, gizon-dantzarena hain zuzen. Honekin Iztuetak emakumeak baztertu zituen nahiz eta dantzetan parte hartu. Aurreku izena ere hor dago, honekin kolektibo zentzua galduz dantza egiten dutenen artean lehenengoa bakarrik aipatzen delako.

Beasain eta Itsason-dorekin lotura

Normalean buruan herri bakoitzeko alkatea joaten da eta azkena zinegotzi gazteena. Dena den herri bakoitzak bere ohiturak izaten ditu eta batzutan zinegotzi gazteena bandera eramaten duena izaten da. "Hauxe da Goierri berreskuratu nahi duguna, eta Ordizia hartu dugu abiapuntutzat gero gainontzeko herrietako festetan kateak jarraituko duelakoaren ustetan. Momentuz Segura eta Lazkao alkateekin ere hitzegin dugu" Ikerfolk-eko ikerlariaren arabera.

21 herrik hartuko lukete parte eta prozesua sinplea da. Ordiziako festetan adibidez goizez Itsasondok dantza egingo luke eta arratsaldez

Beasainek eta honela herriko enparantza iparraldetik eta hegoaldetik sokaren bitartez lotuta geratuko litzateke. Ondoren Beasaingo festetan Lazkao eta Olaberriko alkateek dantza egingo lukete, honela Goierriko herri guztiak elkarlotuta geratu arte.

Alkateak dantza?

Baina ez omen da derrigorrezkoa alkateak berak dantza egitea. "Alde batetik protokoloa alkateak egingo du eta errituala gero herriko dantzariak egin dezakete. Alkateak eskutik hartuta lehen dantzaria eramango du eta eta enparantza erdira iristean honek egingo du dantza alkatearen orde. Alkateak nahi badu eta baldin badaki berak dantzatzeko du" Juan Antonio Urbeltz-ek azaldu duenez. Tradizio hau berreskuratuko delakoan daude Ikerfolkekoak, soka-dantza baita goierriar herri guztiak elkartzeko modu bakarra.

Beraz, badago Santa Ana egunean eguerdiko 12:15etik aurrera zerikusia Enparantza Nagusian. Ez dakiguna zera da, alkatea eta zinegotziak animatuko diren soka-dantza dantzatzera.

Aitor Calvillo



Artesania
Opariak

K. Nagusia, 28
© 16 02 48
ORDIZIA

HERRIKOA TABERNA

Pintxo mundialak

Giro abertzalea

Elkano Kalea

ORDIZIA



MARTINEZ

Jatetxea

Santa Maria, 10

© 88 06 41

ORDIZIA

IDIAZABAL

Txomenaneko parkea herritarren eskura



Txomenaneko parkearen inaugurazioan herritar ugari hartu zuen parte.

Uztailaren 13tik, Txomenaneko parkea zabalik dago. Atsedenerako, jolaserako edo besterik gabe denborapasarako lekua izateaz gain, landare eta zuhaitz klase ugariaren bilgunea ere bada herri erdian dagoen parkea.

Duela 7 urte hasi ziren harremanetan Udala eta Txomenaneko jabeak. Udalak etxea eta terrenoak erosi nahi zituen. Jabeek eskatutako dirua eta Udala emateko prest zegoena ez zetozen bat ordea, eta Udalak desjabetzari ekin zion. Hainbat gorabeheraren ondoren iazko ekainean bereganatu zuen parkea Ezin izan zituen ordea etxea eta honen inguruan dagoen terreno pusketa eskuratu.

Terrenoak lortu ondoren, Gipuzkoako Diputazioak hartu zuen parkearen proiektua egin eta aurrera eramateko ardura, eta hala izan da. 30 milioi pezeta kostatu dira parkean azken hilabeteotan egin dituzten lanak.

Diputazioako teknikariek egindako proiektuari jarraituz, arbola batzuk kendu egin dituzte eta parkean geratu direnei, bakoitzak duen gaitzaren arabera tratamendua jarri zaie. Guztira 36 arbola espezie daude parkean, hauekin batera atsedenerako guneak, haurrentzako jolas-lekuak eta lorategiek osatzen dute Txomenane.

Inaugurazio ekitaldia hilaren 13an egin zen, bertan

izan ziren Iñaki Txueka Gipuzkoako Nekazaritza diputatua, Diputazioako hainbat teknikari, Antton Irizar alkatea eta herriko zinegotziak.

HB-k konzentrazioa egin zuen inaugurazio ekitaldian, 'Kartzeleroak' eta 'Hau ez da Espainia, ezta Frantzia ere Euskal Herria askatu' pankartak erakutsiz.

Odol emaleen balantzea

Herrian odol emateak antolatzen dituen taldeak, urteko lehen sei hilabetetako balantzea egin du. Guztira 100 lagunek eman dute aurten odol herrian. Hauetatik hiruk, Andres Ajuriak, Jesus Azurmendik eta Isaias Contrerassek 25 emanaldi egin dituztelako oroigarria jasoko dute.

Odol emateak antolatzen dituen taldeak laguntzaile izan dituenak ere eskertu ditu: Gorrotxategi oilategia, Sindikatoa, Mujika harategia, Juanito okina eta Gaztelu jatetxea.

Hurrengo odol ematea urriaren 7an egingo da eta odol emateko moduan dau den guztiei deia egiten die odol emaleen elkarteak.

Triatloi herritarra

Uztailaren 24an arratsaldeko 6.30etan egingo da herriko triatloiaren lehenengo edizioa. 3 laguneko talde mixtoak har dezakete parte, erreleboetan ondoko lana bete beharko dute: igeri 4 luze, korrika saioa eta bizikletaz zirkuito bati 3 itzuli ematea.

Izena emateko epea hilaren 19an bukatuko da. Argibide gehiago jakiteko edo besterik gabe izena emateko Kiroldegira jo dezakezue.

San Inaziorik ez

Aurten ez da jairik izango San Inazio egunean. Jaiak antolatzen dituen taldeak ez du aurrekoetan bezala ekitaldirik antolatu.

Iparraldera txangoa

Ezker Abertzaleak, jai giroan Euskal Herriaren zenbait leku esanguratsu ezagutzea helburu duen txangoa antolatu du uztailaren 20an. Amaiur, Zugarramurdi, Hendai bisitatuko dira, 8.30etan abiatuta. Ikasle eta langabetuek 1.000 pezeta ordaindu beharko dute eta gainontzekoek 1.500, bazkaria barne.

Xabier Urteaga



ZERAINGO UDALA

Abuztuko egun horiek oso aproposak izan daitezke bertako txoko, ibilbide eta altxor historiko-artistikoak ezagutu ahal izateko.

Zatoz, gonbidaturik zaude.

Zeraingo Udalak Andramari jai onak opa dizkie herritar eta kanpotarrei



MUTILOA

Etxebizitzak eraikitzeke lur sailen eskaintza

Mutiloa ere jasaten ari da Gipuzkoan nekazal inguruko herriekin gertatzen ari den gutxiagotze ekonomiko eta soziala. Baina onik ekartzen ez duen gaitzik ez dagoenez, krisialdi honek interes kultural handiko herri inguruaz gozatzeko aukera ematen digu, eta batez ere paisaia eta ingurugiro aldetik berebiziko kalitatea duen inguruneaz. Orokorrean guztion interesgune izan daitekeen hiri-herri bateratzea.

Udalak herria sustatzeko eta indartzeko helburuarekin bultzaturiko ekimen garrantzitsuenen artean (Arau subsidiarioak, frontoia, bolatokia) urbanizatuta dauden 20 lur eremuren susta-



Frontoiaren eta Zeraingo bidearen tartean egingo da urbanizazio berria.

pena dago, familia bakarreko edo bi familiako etxebizitzak eraikitzeke R-2 deritzon zonaldean.

Lur eremu hauen salneurriak hauek dira: familia bakarreko etxebizitza 3.325.000koa (586 m² lur

eremua) eta bi familiako etxebizitza 4.722.000 koa (755 m² lur eremua).

Goierritarren bat hauetako lur eremuren bat eskuratzeko asmoz balego (etxebizitza bat eraiki eta Mutiloan bizitzeko konpromezua-

kin) Mutiloako Udaletxera jo beharko luke eta bertan baldintza eta aurkeztu behar den dokumentazioaren berri emango litzateke.

Bizigunearen antolaketa eta kudeaketaren bitartez (suposatzen duen antolamendu eta inbertsioa kontuan hartuz) Udalak bizitzeko modu alternatibo bat eskaini nahi du garai bateko etxebizitza eskaintzarekin alderatuta eta denon ahaleginarekin giza mailako dinamika berreskuratu nahi da, Mutiloak garapenerako ingurugiro, ekonomia eta kultura aldetik beharrezko dituen helburuak beteaz.

Jon Ugalde

ZERAIN

Andramarietarako gero eta gutxiago falta da

Horrelaxe da bai, eta egitaraua prest dago jadanik. Ondo pasatzeko aukera izango da. Hori bai, mozorroa prestatzen hasi, 10.000, 5.000 eta 3.000 pezetako sariak egongo dira eta.

Abuztuak 14, asteazkena:

12:00etan: Herriko gazteen arteko futbito txapelketaren finala.

16:00etan: Haur jolasak.

19:00etan: Herriko pala txapelketaren finala.

20:00etan: Kanpai bueltakoak eta suziariak festei hasera emateko.

20:00etan: Ohizko gibel jatea, Liztormendi elkartearen. Edonork parte har dezake aurrez izena emanda.

22:00etan: Haur eta helduen danborrada. Ondoren goizalderarte, Kristina, Amaia eta bere taldearekin

dantzaldia.

Abuztuak 15, osteguna:

9:00etan: Txistularien goiz eresia etxex etxe.

11:00etan: Meza nagusia.

12:00etan: Txakolin dastaketa herriko plazan.

12:00etan: Herriko gazteen kontzertua plazan.

17:00etan: Andramari bola txapelketa.

18:00etan: Pelota partiduak: Berasategi-Gastesi Vicente-Hombreren aurka; eta Artola-Etxeberria Carrete-De Santosen auka.

20:00etan: Zeraingo VIII. trikitilari txapelketa herriko plazan.

23:00etan: Imuntzo eta Beloki taldearekin dantzaldia goizalderarte.

Abuztuak 16, ostirala:



9:00etan: Txistularien goiz eresia etxex etxe.

11:00etan: Meza.

12:00etan: Herri kirolak: Zerain Zegamaren aurka. Ondoren bertsolariak: Sebastian Lizaso eta Imanol Lazkano.

17:00etan: Andramari bola txapelketaren azken saioa.

20:30ean: Herri afaria

plazan, Lizaso eta Lazkano bertsolariekin eta Juanito Mendizabal txiste kontalariekin. Mahai banaketarako izen ematea arratsalde beretan, 7.30ak aurretik. Afal ondoren eta goizalderarte Imuntzo eta Beloki taldearekin dantzaldia.

1:00etan: Mozorro gaua. Mozorrotuen desfilea eta sari banaketa.

Andoitz Telleria

SEGURA

Apirilaren 25eko osoko bilkuran erabakia hartuta, uztailaren hasieran gauzatu da "Ardixarrane" edo "Don Garci" etxearen erosketa. "Servatas" enpresak tasatu ondoren, 9 milioi ordaindu ditu Udalak. Gipuzkoako eraikuntza zibil interesgarrienetakotzat joa, XV. mende amaieratik izan dituen aldaketa bakarrak, sukaldeko beheko sua kentzea eta atariko harlosak porlanez estaltzea izan dira. Etxearen egoera ikusita, teiltatua konpondu ondoren, zaharberritu prozesuari ekingo zaio, beti ere, jatorrizko egitura errespetatuz. Horretarako, Diputazioa zein Eusko Jaurlaritzara dirulaguntzak eskatu dira. Asmoa, herria sustatzeko sortze dagoen kultur elkar-tearen egoitza izatea da.

Futbolekoak Austriara

Aizkorri Futbol Taldeko 13, 14 eta 15 urteko infantilez eta kadetez osatutako talde bat Austriako Linz hirira joango da, mundu guztiko 200en bat taldek parte hartuko duten "Upper Austria Cup 1996" futbol torneoak jokatzen. Helburua, futbolarekin batera mutikoei oporrak eskaintzea da. Bidaia autobusez egingo dute, uztailaren 27an irtenda abuztuaren 4rako etortzeko. Guztira 37ren bat lagun irtengo dira eta gastuak mutikoen gurasoen gain joango dira.

Bestalde, datorren denboraldiari begira, aurkezpenetarako datak jarriak dituzte. Futboleko jokatzearen interesatua dagoen edozein goierritar, ager dadila ondorengo egunetan:

Errejonialak: uztailaren 22an, 19:30ean. Edozein adinetakoak izan daitezke.

Jubenilak: uztailaren

22an, 19:30ean. 1978, 79 eta 80an jaioetakoak.

Kadeteak: abuztuaren 19an, 18:30ean. 1981 eta 82an jaioetakoak.

Infantilak: abuztuaren 27an, 18:30ean. 1983, 84 eta 85an jaioetakoak.

Aterpetxea beteta

Uztailaren eta abuztuaren 15 eguneko txandatan ingeles ikastaroa egingo duten 4 talde izango dira, guztiak gipuzkoarrak. Uztailaren 16an sartu zen 2. taldea, 14-17 urte bitarteko 40 ikasle, 4 irakasle eta 5 begiralarerekin batera. Abuztuaren 1go hamabostaldian 18-30 urte bitarteko taldea etorriko da, 2. hamabostaldian, berriz, 14-17 urte bitarteko azkena. Goizez klase teorikoak dituzte, arratsaldez irteerak eta aktibitateak, beraien artean ingelesez parkitatu. Irailaren 1eko leku gehienak hartuak daude. Urritik ekainera, berriz,

"Euskal girotze barnetegia" plana jarriko da martxan. 5 eguneko txandatan eta 30en bateko taldetan, Gipuzkoako OHOk hainbat ikastetxetako neska-mutikoak etorriko dira. Planaren helburua ikasleen euskara maila hobetu eta euskaraz bizitzea izango da. Horretarako 4 irakasle finko izango dituzte bertan. Xanti Moriones bertako zuzendariak dioenez, urtean zehar aurreko urtean baino jende gehiago ibili da eta Diputazioaren aterpetxeetatik okupazio maila altuena izan duena da.

Dendak eta tabernak abuztuaren

Jermanene, Beheko alkilerre, botika eta arrandegia goizez bakarrik egongo dira zabalik.

Gainerakoak arratsaldez ere irekiko dituzte, 18:30etatik aurrera. Ostegunetan, berriz, fruta-saltzaileak bakarrik jarriko du salmenta pos-

tua. Tabernei dagokienez, Atsedene abuztu guztirako itxiko du eta Imazene taberna bakarrik izango du zabalik. Gainerakoak irekita egongo dira. Udaletxea zabalik egongo da eta liburutegia itxita uztailaren erditik abuztuaren erdira.

Diapositiba emanaldiak

Iaz bezalaxe, Elorri K.E.ak Udaletxearen eta Kutxaren laguntzaz, herriko plazan uztailaren 15etik 19ra antolatuta duen gauetako diapositiba emanaldia, ostiralean, 22:15etan Batis Goikoetxeak eta M. Anjel Otxoa De Al-bak eskainiko duten "Aizkorri mendilerroa neguan" emanaldiarekin amaituko da.

Udalekuak

Uztailaren 15etik 28ra, inguruko herrietako 9, 10 eta 11 urteko 45 lagun joan dira frantziskotarrek Erriberriko gazteluaren ondoan duten etxera, horietatik 15 segurarrak.

Orduñako aterpetxean dauden 7-8 urteko 4 ume uztailaren 20an etorriko dira. Zarauzko aterpetxean egon diren 9-10 urteko 5 neska-mutikoak, berriz, uztailaren 14an etorri ziren.

Jubilatuak Bilbora

Lehenengo aidean beteta, bigarren autobusa antolatuta dute uztailaren 23an jubilatuen txangoan Bilbora aterako direnek. Bertan, Max Center eta metroa bixitatuko dituzte, besteak beste. Irteera 8:30etarako dago iragarria, ailegaera, berriz, 19:30ak alderako. Etxeko-andreak Errioxara egin zuten bere urteroko eskurtsioa uztailaren 16an.

Joseba Telleria



95-96ko kirol eskolarra

Laiotz Herri Eskolan ibili diren 86 ikasletik 65ek hartu dute parte urritik ekaina bitartean eskolarteko kirol jokuetan. Atletismoan eta krozean 21 neska eta 12 mutil aritu dira, futbitoan 7 neska eta 29 mutil, mendian 5 neska eta 3 mutil, pelotan 20 mutil, saskibaloian 3 neska eta 16 mutil, igeriketan 6 neska eta 3 mutil, txirrindularitzan mutil bat eta tenisean 11 neska. Guztira 22 domina lortu dituzte, urrezkoak 8, zilarrezkoak 5 eta brontzezkoak 9. Hala ere, Xabier Intxausti kirol eskolarreko teknikari eta koordinatzailearen ustez, lehia hutsaren gainetik kirolaz eta lagunarteaz gozatuz partehartzea bultzatu nahi izan da. Argazkian, kirol eskolarrean parte hartu dutenak.

BEASAIN

Auzolandegiko lehen taldea hasi da lanean

Igartza jauregia txukuntzeko antolatutako auzolandegia uztailaren 15ean jarri zen martxan. Udaletxeko Batzar-aretoan ongi-etorria egin zitzairen. Asteartean, berriz, beraien "lantoki" berria ikusi eta gogor hasi ziren jo eta ke. Batzuk aldamiotan gora pareta txukuntzen, besteak barrutik zaborra ateratzen. Bertatik atera zituzten kristalezko botila mordoak harrituta utzi zituen gazteak.

Jauregiaren ibai aldeko paretan jarritako aldamiotan ibili beharko dute gazteek. Guztira, hiru taldetan banatuta, 90 gazte. Hilaren 26ra bitartean 16-18 urte bitartekoak arituko dira; abuztuaren 5etik 18ra 18-21 bitartekoak; eta abuztuaren 19tik 31ra, 22tik 25ekoak. Antolatzaileek adierazi digutenez, arrakasta izan du bai Beasaingo auzolandegiak, bai Zegama eta Billa-bonakoak. Zozketa egin behar izan dute, kopurua mugatu baitzen hiru auzolandegietan. Gipuzkoa osoko gazteak etorriko dira, baina batez ere Donostia aldekoak. Beasaindar gazteek ere hartuko dute parte. Gehienak herritik kanpo joango badira ere, Beasainen bertan geldituko direnak ere badira.

Liburutegia, goizez

Irailaren 13ra bitartean, goizez bakarrik egongo da ire-



Zabor ugari ateratzen ari dira Igartza Jauregiaren barrutik gatzetxoak.

kita Udal Liburutegia: 9.00etatik 13.30era. Orain gainera, liburutegiak zerbitzu hobia eskaintzeko ahalmena du. Orain bertan dauden 14.000 ale baino gehiagoren aurkikuntza errazagoa da. Ikasturte hasieran 1.069 bazkide zituen ikasturte hasieran, hauek liburua mailegatuta har ditzakete. Baina liburutegian bertan edonork kontsulta dezake nahi duena.

Sistema informatikoari esker oso erraza da liburuak topatzea edo liburuari buruzko kontsultak egitea. Ordenagailuari eskaera ezberdinak egin ahal zaizkio izenburuaren bidez, egilearen bidez, gaiaren bidez... Ordenagailuak liburua une horretan mailegatuta dagoen edo ez azalduko du eta baita liburuari buruz gordeta dituen datu guztiak ere.

Azken hilabeteetan bideo

zintzen mailegua ere jarri da martxan. Oraingoz marrazki bizidunak eta dokumentalak jasotzen dira.

Euskara ikasleentzat diru-laguntzak

1995etik 1996ko abuztura bitartean (biak barne), edozein mailatako Euskalduntze-Alfabetatze Euskara-ikasketak Euskaltegiren batean (Udal Euskaltegietan salbu) egin dituzten edo egiten ari diren 16 urtez goitiko ikasle beasaindar guztiek, diru-laguntza eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte Udaletxe honetako Harrera-bulegoan, ohar hau argitaratzen denetik aurrera eta aurtengo azaroaren 30era bitartean, goizeko 9etatik 13etara. Irale, Udal Euskaltegi, Administrazioak antolatutako Ikastaro edo gisako laguntzarik badute, ez dute diru-laguntza hau

jasotzerik izango. Eskatzailak klase-orduen %80etara joan izan frogatu beharko du ibili den Euskaltegiko agiriaren bidez eta Beasainen erroldatuta egon.

Zineak oporrak

Uztailaren 23tik abuztuaren 23ra arte ez da zinerik ikusteko aukerarik izango. Beste hainbat lekutan bezalaxe, 'Oporretan gaude' txartela jarriko baitute.

Futbol Taldea

Beasain Futbol Taldeari, ordea, bukatu zaizkio oporrak. Hilaren 18an hasi zuten aurrendenboraldia Loinatx zelaian. Zenbait aldaketa izan dira. Iazko denboraldiko jokalariez gain, Lazkaoko taldetik Unai Santamaria beasaindarrak eta Manex Sarriegi lazkaotarrak jokatuko dute.

Zuzendaritzan ere izan da aldaketarik. 8 urtez Beasain Kirol Elkarteko diruzaina izan den Gurutz Auzmendiren ordeaz, Jose Luis Arriola alkate ohiak hartuko du lan hori. Bazkide kuotak mantendu egingo dira denboraldi honetan, baina bazkide kopurua igotzeko konpromezua hartzea derrigorrezkoa ikusten dute.

Izaskun Salazar

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 8893 90 BEASAIN

IBAI-ONDO



**ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Antzizar Auzoa, z/g
☎ 880543 BEASAIN

Erakusketa
Sukaldeko tresnak

Alpe

Mariaratz, 4
Tfnoa.: 88 86 84

BEASAIN

ZEGAMA

San Bartolome jaiei egitaraua prest

Oraindik asko samar falta bada ere, jaien egitaraua aurreratuko dizuegu jarraian. Egunez eguneko ekintzez gain, gogoratu, abuztuaren 24tik 27ra ikasturtean zehar egindako eskularen tailleren egindako lanen erakusketa izango dela Kultur Etxean. Ordutegiak: eguerdietan 12:30etik 14:00etara eta arratsaldean, 19:00etatik 21:00etara. Gozatu eta ondo pasatu!

Abuztuak 23, ostirala:

12:00etan: Festen hasierako kanpaijotze eta suziariak.

14:00etan: Elizondoko plazan koadrilen bazkaria.

17:00etan: Bezpera Nagusiak.

17:30ean: XIX. Zegamako Futbito txapelketaren azken partidua.

18:00etan: Txarapen, herritarrentzat bolajokua.

19:00etan: Buruhandi, erraldoi eta zankodunak Oria txarangak lagundurik.

24:00etatik 4:00etara: Drindots taldearekin dantzaldia plazan.

Abuztuak 24, larunbata:

7:00etan: Sokamuturra.

9:00etan: Herriko txistulari taldearekin kalek kaleko goizeresia.

11:00etan: San Bartolome ermittatik Parrokira prozesioa txistulari, dantzari



Herria umorez eta kolorez jantziko da abuztuaren 23tik 27ra.

eta herriko agintariekin batera. Ondoren Meza nagusia.

12:30ean: Arin-arin eta Fandango saioa bikoteka.

18:00etan: Pelota partiduak.

20:00etan: Zankodun, erraldoi eta buruhandiak kalek kale herriko txistulariekin.

24:00etatik 4:00etara: Drindots musika taldearekin dantzaldia plazan.

Abuztuak 25, igandea:

8:45ean: LXII. San Bartolome txirrindulari proba.

9:30ean: Diana herriko txistulari taldearekin.

10:00etan: Gipuzkoako Bola txapelketaren lehen saioa, Txarapeko bolatokiak.

12:00etan: Arakama trikitilariak herrian zehar.

13:00etan: Bertsolariak plazan. Iñaki Murua, Ando-

ni Egaña eta Angel Peñagarikano.

17:30ean: Gipuzkoako Bola txapelketaren 2. saioa.

18:30ean: Bertsolari eta trikitilarien 2. saioa.

19:30ean: Parapente ikuskizuna. Aizkorritik Murgizelaira.

20:30ean: Zankodun, erraldoi eta buruhandien kalejira herriko trikitilariarekin.

23:00etatik 3:00etara: Egan musika taldearekin dantzaldia herriko plazan.

Abuztuak 26, astelehena:

9:30ean: Diana Urantzu dultzaineroekin.

11:00etan: Plazan Toka txapelketa.

12:30ean: Sagardo dastaketa herriko plazan.

18:00etan: Herri kirolak.

19:30ean: Olaberriko aparkalekuan, globo aerostatiko bat helduentzat.

Santiago bidea ikusentzunezkoa eta hitzaldia

Uztailaren 23an, iluntzeko 8etan, 'Santiago bidea' ikusentzunezkoa eta ondoren hitzaldia izango da Kultur Etxean. Santiagobidea, dagoen zaharrena, Frantziatik pasatzen dena ikusiko da. Ondoren, Euskal Herritik pasatzen denari buruz hitzalditxo bat izango da Marpol taldekideen eskutik.

20:30ean: Zankodun, erraldoi eta buruhandiak Urantzu dultzaineroekin.

22:00etan: Suziri eta trakea erretzea.

23:30etik 3:30era: Joselu anaiak musika taldearekin dantzaldia plazan.

Abuztuak 27, asteartea:

10:00etan: Diana herriko txistulari taldearen eskutik.

11:00etatik 12:00etara: Haurrentzat jokoak herriko plazan.

17:30ean: Trialsin ikuskizuna herriko plazan.

19:30ean: Globo aerostatikoa haurrentzat Olaberriko aparkalekuan.

20:30ean: Zankodun, erraldoi eta buruhandien kalejira herriko txistulariekin.

Eduarne Albizu



ARANDIA
Garaiea

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g
88 09 47

Iurre Auzoa
OLABERRIA

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba

MOTA GUZTIETAKO pentsuak, ongarriak, lantresnak

Esuskal Herria Kalea
Industrialdea

88 04 15
16 07 07

ORDIZIA
OLABERRIA

LAZKAO

Herriko atletak sasoi onean

Azken hilabete honetan herriko hainbat kirolari gaztek bere maila ona erakutsi dute parte hartu duten Espainiako txapelketa desberdinetan. Naiara Tejedos, Erika Gonzalez eta San Benito ikastolako mutilen infantil taldea izan dira hain zuzen lorpen hauen protagonistak.

Naiara Tejedosek behar zuen denbora aurretik lortu ondoren, Malagan izan zen kadete mailako Espainiako txapelketan. 300 metro hesidunetan finalerdietako bere lasterketan bigarren egin eta gero, meritu handi-



Naiara Tejedos

ko 7. postua lortu zuen finalen.

Euskadiko txapeldu-na den Erika Gonzalezek, aldiz, Madril-en izan zuen 5.000 metro martxako jubenilen txapelketa. Bertan etorkizun handiko kirolaria dugula erakutsi zuen, lan txukuna burutuaz.

Azkenik azpimarratzekoa da San Benito ikastolako mutilen infantil taldeak Mallorcan izandako arrakasta. Eneko Mendia, Aitor Estala, Lander Hijona, Imanol Salaberria, Iñaki Osés, Beñat Aranguren,

Gorka Maiz eta Erkaitz Gandariasek osatutako taldeak Gipuzkoako txapelketa irabazi ostean Euskadikoan EAEko ordezkari bezala joatea lortu zuten, bertan 16 Autonomi Elkarteren artean izandako lehiaren 6. postu bikaina ikusita eskuratu zutelarik.

Ezin ukatu beraz, emaitza hauek ikusita etorkizun oparoa dutenik. Ea noiz izaten dugun kirolari gazte hauen berri pozgarri gehiago emateko aukera.

Koldo Urrestarazu
Urko Irastorza

ITSASONDO

Gozategi, Zapotxin, herri afariak...



Garaiz bada ere, jarraian dihoakizue Andra Mari jaietako egitaraua. Ondo pasa!

Abuztuak 13, asteartea:

19:00etan: Txupinazoa.

19:00etan: Futbol txapelketa.

21:00etan: Afaria Gaztetxean.

Abuztuak 14, asteazkena:

9:00etan: Trikitilarien diana.

13:00etan: Hamaiketakoa beheko plazan. Ondoren bertso saioa: Joxe Agirre, Sebastian Lizaso eta Xabier Zeberio.

16:30etan: Haurrentzat txirrindu proba.

18:00etan: Zinta karrera beheko plazan. Opari "bixiak" haur eta helduentzat.

19:30etan: Salbea.

20:30etan: Kalejira herriko txistulari eta buruhandiekin.

21:00etan: Herri afaria beheko plazan.

22:30etan: Zapotxin taldearekin dantzaldia beheko plazan.

Oharra: 10:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 17:30era haurren parkea izango da beheko plazan.

Abuztuak 15, osteguna:

9:00etan: Txistularien diana.

10:00etan: Kros lasterketa.

11:00etan: Meza nagusia.

13:00etan: Toka txapelketa beheko plazan.

18:00etan: Pelota partiduak Errota frontoian. Jau-regi-Sukia Saralegi-Goitaren aurka; eta afizionatuetan Haritz-Iparragirre Koka-Gastesiren aurka.

19:30etan: Sagardo das-taketa eta kalejira Pasai txarangarekin.

22:30etan: Gozategi taldearekin dantzaldia beheko plazan. Mozorro lehiaketa.

Abuztuak 16, ostirala:

5:00etan: Txokolate jana goiko plazan.

6:00etan: Danborrada.

9:30etan: Txistularien goiz eresia.

11:00etan: Meza nagusia.

11:30etan: Beheko plaza-tik Altzagarateko igoera.

18:30etan: Kriteriuna, txirrindulari afizionatu eta jubentilekin.

20:00etan: Tortila pafata txapelketa beheko plazan.

22:30etan: Trikitixa: Tri-kibeltz taldea beheko plazan.

ATAUN

Zubikoeta gasolindegia prest



Goikoa: 1978. San Martingo plazan, 'Miravalles' aurrean zeuden surtidorea eta depositua kendu zituzten eguna. Arg.: Martin Arruabarrena. Behekoa: Zubikoeta gasolindegia berria.

Organuaren datuak:

Noizkoa: 1761.

Egilea: Oñatiko Lorenzo Arrazola.

Historia: Gipuzkoan zaharrena.

Estiloa: Barrokoa.

Presupuestoa: 22 milioi. Gipuzkoako Diputazioak emana.

ren Aste Saindurako eta orain Pilarika ingurura atzeratu da.

Oso dotore jarri dute aurpegiz eta leienda hau irakur daiteke: "Laudate Dnm in timpano & Coro Laudato Eumin Cordis & Organo - 1761".

Lapurretak

Kaxetaren txanda izan da oraingoan. Ostegun goizean,

hilak 11 egin zuten lapurreta. Tabernan sartu, zerbait eskatu eta komunerako aitzakian etxeko goiko-geletara igo. Kaxetakoak konturatu ziren baina estu hartu omen zituzten lapurrek. Piti edo joyetan 200.000 pezeta eramanak izango dira. Ertzaintzatik esan denez, lapur hauetako batzuk atxilotu dituzte baina beste batzuk libre dira oraindik. Hungaria-koak omen dira jaiotzez. Azti ibili!

Ibilaldi neurtua

Prestatzeko denbora bada oraindik. Irailaren 8an egingo du aurtengoa, Kirol Elkartek. Aiatik izango du irteera: Maomendi, Leizadi, Gaztarri, Lareo... Hasi presatzen. Ezagutu herria!

Jon Aizpurua

Egunotan irekiko dute 'Zubikoeta' izena daraman gasolindegia Orain 18 urte, 1978an itxi zuten San Martingo plazan 'Miravalles'ekoek zeukaten surtidorea. Orain familia berak ireki du gasolindegia berri hau. Guillermo Galparsorok adierazi digunez, Avia Suitzako petrolio-enpresaren produktuak izango dituzte.

Gasolindegian, gasolina klase guztiak egongo dira, eta goizeko 6.30etatik gaueko 10.30ak arte egongo da irekita, aste eta jai. Gasolina bertako langileek zerbituko dute.

Horrezaz aparte, kotxea garbitzeko makina moderno bat jarri dute, 4 aukera desberdin dituen eta norberak aparte, eskuz edo mangeraz garbitu nahi badu aukera izango du.

Puska ederra herriarentzat, kotxe-zaleek bertatik bertara izango dutelako gaur egun, iturriko ura bezain garrantzitsu bihurtu den gasolina.

Organoa ekarri dute

Kostata baina ekarri dituzte Katalunyatik organoaren barruko trasteak. Uztailaren 2an ekarri zituzten arratsaldeko 3etan eta ia 3 ordu behar izan zituzten deskargalanetan.

Oso luze doaz lanak. Orain 3 pasatxo hasi zituen lanak Katalunyako Arrizabalaga enpresak eta oraindik beste 2-3 hilabete beharko dira dena pronto uzteko. Jexux apaizak esan digunez, gauzak ondo, urrian edo amaituko dituzte. Elizaren asmoa zen, iaz Eguberrietarako organoa jotzeko moduan edukitzea baina ondo-



Kirola egiteko garai ederra. 50 lagun izan dira partaide VII. Tenis txapelketan. Onenek irabazi dute.



'Aizpurua'tarren bilkura

Uztailaren 7an elkartu ziren Ordiziako Oiangun. 134 lagun guztira. Abaltzisketatik Atauna etorriak, orain Erretereria, Legazpi eta beste herri batzuetara zabaldua daude. Egun zoragarria pasa zuten.

GABIRIA

Jarraian duzue aurtengo San Roke jaien egitaraua. Moto-rra berotzen joan, mozorroa prestatzen hasi... eta ondo ibili!

Abuztuak 14, asteazkena:

20:00etan: Suziri eta kanpaiek festen hasiera iragarriko dute.

22:30an: Bertsolari jaialdia: S. Lizaso, A. Egaña, A. Mendiluze, J. Sorozabal, J.R. Elorza eta J. Munduate.

Gauean: Maixa eta Ixiar.

Abuztuak 15, osteguna:

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Gazta lehia-keta herritarrentzat.

12:45ean: Ormaiztegitik Gabiriarako igoera txirrin-duz herritarrentzat.



12:30etik 13:30era: Bola eta toka.

18:00etan: Herri kirolak.

19:00etan: Afizionatu mailako pelota partiduak.

19:00etan: Bola eta toka.

Gauean: Arkaitz musika taldearekin dantzaldia. Bertan mozorro dantza izango da.

17:00etan: Baratzuri zopa.

Abuztuak 16, ostirala:

11:00etan: Meza Nagusia. Ondoren Goruntz dantza taldea.

17:30ean: Ume jolasak, buruhandiak eta mozorro dantza.

19:00etan: Sagardo das-taketa txorixo eta gaztare-kin.

Arratsalde eta gauean: Etzakiat taldearekin dantzaldia.

21:30ean: Koadrilen arteko afaria.

2:00etan: Basurde harra-paketa.

5:00etan: Txokolate ja-na.

Abuztuak 17, larunbata:

11:00etan: Meza.

12:00etan: XV. tiragoma txapelketa.

18:00etan: Ardo beltz banaketa herriko zagiardotik.

Gauean: Zapotxin musika taldearekin dantzaldia.

Abuztuak 18, igandea:

17:00etan: Herria txukuntzea. Ondoren, lanean aritu direnentzat afari-me-rienda.

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...

Tfnoa.: 88 89 53

ARAMA

ORDIZIA

AUTO-ESKOLA


Aita Urdaneta ☎ 88 72 76

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ **88 28 21 - 16 07 06**
ORMAIZTEGI

ondoeta



*Santa Ana jai
zoriontsuak denoi*

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Nagusia, z/g.


Tfnoa.: 883102. Faxe: 88 0872

ITSASONDO

Ordizia Eskubaloit Taldea: denboraldi gazi-goza

Ordizia Eskubaloit Taldeak denboraldiko balantzea egin berri du. Ondorio gazi-goza izan dituzte: alde batetik nahiko dezepziona-tuta geratu badira ere, beste batetik poza gainezka izan dute.

Elkarteko hainbat taldek ez dute beraiegan jarritako itxaropenak baiezatu. Ugariak dira hau gertatzearen arrazoiak: zorte txarra, zenbaitetan lesioengatik, arbitroen jokaera kaskarra.... Baina zenbait jokalarik, oztopo hauek gainditu eta beraien ardurak behar bezala bete zituztela adierazi dute. Kategoria ezberdinetako taldeek sailkapeneko erdi aldean bukatu dute denboraldia, nahiz eta zenbait unetan go-



rako egoteko borrokatu.

Era berean, elkarteko arduradunak kezkatuta azaldu dira, antolakuntza lanetan laguntzeko jendea ez delako prest azaltzen. Zaleak honen inguruan gogoeta egitera bultzatzen dituzte.

Baina hau guztia ahaztu arazi du goi mailako taldeek herriko hainbat jokalarik gazteenganako jarri duten

interesak. 93. alean azaldu genuen bezala, Ruth Carrillo eta Eli Torres Corteblando Bidebieta taldeak fitxatu ditu eta Gerardo Feijoo Elgorriaga Bidasoak. Denboraldi bukaerak poz gehiago ere ekarri die: Ruth eta Gerardo goletzaila nagusiak izan dira euren kategorietan. Beste zenbait jokalarientzat ere, Alayn eta Iñaki lekuko, goi mailako tal-

deek interesa agertu dute.

Kategoria bakoitzeko jokalarik nabarmenena-ri saria eman zioten, denboraldi bukaera ospatuaz egin zuten afarian. Hauek dira: gizon-eko seniorretan, Jesus Angel de Marcos "Medu"; gizon-eko gazteetan, Javi Petxarroman; emakume-eko kadeteetan, Nekane Zubeldia eta gizon-eko kadeteetan, Gerardo Feijoo.

Denboraldi bukaeran pozak tristura gainditu du, honek indarra eman die datorren urtean gogor lanean jarraitzeko. Lortutakoagatik entrenatzaile, talde arduradun, babesle, eta lagundu duen guztiei eskerrak eman dizkie Ordizia E. T.-koek.

ZABALE
OKINDEGIA
DIETETIKA

- Mediku akupuntorea
- Pisuaeren kontrola
- Estetiziena

Santa Maria, 8 ☎ 88 12 11
ORDIZIA

KEMEN KIROLAK

Zumalakarregi, 1
☎ 88 51 68
ORMAIZTEGI

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak"

OKINDEGIA GARBINA

K. Nagusia 35	Elosegi, 14	Sta. Maria, 19
☎ 88 77 58	☎ 88 72 79	☎ 16 00 44
BEASAIN	LAZKAO	ORDIZIA

ORDIZIAKO GARAGARZA PLAZAN

Eraikuntza berria: apartamentu, etxebizitza eta terraza handidun atikoekin
Lokal komertzial eta garajeak
1. go kalitateko eraikuntzak

PROMOTOREA:

GOI-ETXE S.A.

Filipinas, 13 - behea ☎ 88 49 50 **ORDIZIA**



1981eko ordiziarrek

Ordiziako Jakintza Ikastolako ikasleen argazkia da, 1981. urtean jaiotakoena. Honez gero koxkortuak izango dira eta aurtengo herriko jaietan nahikoa parranda egingo dute. Ondo pasa!

Zutik: Xabier Crespo, Mikel Mendizabal, Ainara Barrio, Leire Alonso, Oihana Aranburu, Jon Barandiaran, Idoia Garmendia, Enara Etxeberria, Mariaje Aranburu (andereñoa), Naroa Ezkerra eta Iker Mendoza.

Eserita: Eneko Corcuera, Miren Rezola, Jon Lekuona, Mikel Apalategi, Ana Paradela, Aitor Garzia, Eli Arroyo, Josune Prieto eta Aitziber Ruiz.

 **orkli, s.coop.**



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08



Vegasa



*Ordaindu 12
hilabetetan
errekaragurik gabe*

Suquia

SUKALDEKO ALTZARIAK


ERAKUSKETA:

K. Nagusia, 10

88 23 00

ORDIZIA

- ✓ Keramika erakusketa eta salmenta.
- ✓ Bainuak, kanilak eta osagarriak.
- ✓ Bainugelarako altzari ugari.
- ✓ Sauna-kabinak eta hidromasaia-bainuak.
- ✓ Tximiniak, ikatz eta egur sukaldeak.
- ✓ Iturgintza, gasa eta berogailuak.
- ✓ Igeltseritza orokorrean.



AUSO EGI
ITURGINTZA

Urdaneta Kalea, 41

Tfnoa. eta faxa: 88 95 76

ORDIZIA